# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4160**

**Diputatuen Kontseiluaren 3/2013 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, abuztuaren 1ekoa, Arabako zerga araudira egokitzen dituena zerga berezien esparruan ikatzaren gaineko zerga bereziari buruz egindako zenbait aldaketa.**

Uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretu-legea, sistema elektrikoaren finantza egonkortasuna ziurtatzeko premiazko neurriak hartzen dituena, onartu eta argitaratzearekin, zenbait aldaketa sartu dira zerga berezien inguruko araudian, ikatzaren gaineko zerga bereziari dagokionez.

Industria arloaren lehiakortasunari eusteko eta antzeko erabilera eta helburuetarako ikatza eta gas naturalaren mota guztietako kontsumitzaileei berdintasunezko baldintzak ipintzeko, beharrezkoa iritzi zaio gigajouleko 0,15 euroko tasa murriztua ezartzeari helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatzerako, baldin eta elektrizitate sorkuntza edo baterako sorkuntzako prozesuetan ez bada erabiltzen.

Aurretik esandakoaren ondorioz, eta helburu desberdinetan oinarritutako zerga bereizketa ziurtatzeko asmoz, beharrezkoa da zerga berezien inguruko araudian zehaztea zeri esaten zaion “helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza”.

Era berean, energia elektrikoa eta bero baliagarria batera sortzeko instalazio baterako ikatz hornikuntza egiteko garaian ezinezkoa denez gero azkeneko kontsumitzaileak jasan behar duen zerga zama jakitea, eta azken hori, ahal den neurrian, errealitatera egokitzeko helburuaz, zerga tasa desberdinak aplikatuko zaizkion ikatz kopuruaren behinbehineko banaketa ehuneko bat finkatzen da. Horrengatik beharrezkoa da, alde batetik, zerga jasanarazteko erregeletan beharrezko bereizketa ezartzea, horrelako hornikuntzak egiten dituzten subjektu pasiboekiko; eta, bestetik, jasanarazitako kuoten zenbatekoa ikatzaren behin betiko helburu ehunekoaren arabera erregularitzatzeko betebeharra jasotzea.

Azkenean, arau-hauste berri bat tipifikatzen da, subjektu pasiboei datu okerrak jakinarazteagatik, gigajouleko 0,15 euroko zerga tasa aplikatuz egiten diren ikatz hornikuntzen inguruan.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoak, bere 33. artikuluan xedatzen duenez, zerga bereziak itunduak dira, eta ezartzen du ezen, salbuespen jakin batzuk izan ezik, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dituztela lurralde historikoetako erakunde eskudunek.

Hori dela eta, beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian txertatzea uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretu-legean jasotzen diren aldaketak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena ikusi da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta aldez aurretik Diputatuen Kontseiluan gaur egindako bilkuran eztabaidatuta, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak–, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak –Arabako Foru Aldundiaren

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4160**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2013, del Consejo de Diputados de 1 de agosto, que adapta a la normativa tributaria alavesa diversas modificaciones introducidas en el ámbito de los Impuestos Especiales en relación al Impuesto Especial sobre el Carbón.**

La aprobación y publicación del Real Decreto-ley 9/2013, de 12 de julio, por el que se adoptan medidas urgentes para garantizar la estabilidad financiera del sistema eléctrico, ha supuesto la introducción de modificaciones en la normativa reguladora de los Impuestos Especiales en relación al Impuesto Especial sobre el Carbón.

Con la finalidad de mantener la competitividad del sector industrial y poner condiciones de igualdad a los diferentes consumidores de carbón y gas natural para similares fines y usos, se ha considerado necesario establecer un tipo reducido de 0,15 euros por gigajulio para el carbón destinado a usos con fines profesionales, siempre y cuando no se utilice en procesos de generación y cogeneración eléctrica.

Como consecuencia de lo anterior y con el objeto de asegurar la diferenciación en la imposición basada en los diferentes fines, es necesario precisar en la normativa reguladora de los Impuestos Especiales, que se entiende por “carbón destinado a usos con fines profesionales”.

Asimismo, ante la imposibilidad de conocer con exactitud, en el momento de realizar el suministro de carbón a una planta de cogeneración de energía eléctrica y calor útil, la carga tributaria que debe soportar el consumidor final y para ajustar ésta, en la medida de lo posible, a la realidad, se fija un porcentaje de reparto provisional de la cantidad de carbón sobre la que se aplicarán los diferentes tipos impositivos. Por ello es preciso, por un lado, establecer la necesaria especialidad en las reglas de repercusión del Impuesto, con respecto a los sujetos pasivos que realizan estos suministros y, por otro, recoger la obligación de regularizar el importe de las cuotas repercutidas conforme al porcentaje definitivo de destino del carbón.

Finalmente, se tipifica una nueva infracción por la comunicación incorrecta de datos a los sujetos pasivos en relación con los suministros de carbón que se realicen con aplicación del tipo impositivo de 0,15 euros por gigajulio.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en el artículo 33 la concertación de los Impuestos Especiales, disponiendo que, salvo determinadas excepciones, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos deben aplicar las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Ello exige incorporar a la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava las modificaciones incluidas en el referido Real Decreto-ley 9/2013, de 12 de julio.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992,

Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak– Arabako Foru Aldundiari emandako eskumenen arabera, premia arrazoiengatik hauxe

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Zerga Bereziena, aldatzea.

Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan, Zerga Berezienean, aldaketa hauek egiten dira, eta 2013ko uztailaren 14tik aurrera sortuko dituzte ondorioak:

Bat. Aldatu egiten da 88. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“88. artikulua. Zerga tasak.

1. Ondoko epigrafe hauei jarraituz eskatuko da zerga:

1.1. epigrafea: Helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza, baldin eta energia elektrikoaren zuzeneko nahiz zeharkako sorkuntza edo baterako sorkuntzako prozesuetan ez bada erabiltzen: 0,15 euro gigajouleko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza esaten zaie industria lantegi eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren ikatz hornikuntzei, salbu eta energia termiko baliagarria sortzeko erabiltzen dena, energia horren azkeneko aprobetxamendua industria lantegi edo instalazioen izaera ez duten establezimendu edo lokaletan egiten bada. Halaber, helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza iritziko zaio nekazaritza lanetan erabiltzen den ikatzari.

1.2. epigrafea: beste erabilera batzuetarako ikatza: 0,65 euro gigajouleko.

2. Energia elektrikoa eta energia termiko baliagarria batera sortzeko instalazio batean erabiltzeko den ikatzaren hornikuntzan, instalazio hori behartuta baldin badago azaroaren 27ko 54/1997 Legea, Arlo Elektrikoarena, garatzen duen araudian azaltzen den baliokideko errendimendu elektrikoa betetzen duela egiaztatzera, artikulu honetako 1. idatz zatiko 1.1.eta 1.2. epigrafeetan araututako zerga tasak aplikatuko dira, alternadore borneetan neurtutako elektrizitate ekoizpenari eta energia termiko baliagarriari egotzi behar zaien ikatz ehunekoaren arabera, arauz ezarriko den prozedurari jarraituz.”

Bi. 89. artikuluko 1. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio, orain arteko paragrafo bakarraren ondoren joango dena. Hona hemen testua:

“Araugintzako dekretu honen 88. artikuluko 2. idatz zatian azaltzen den bezala egindako ikatz hornikuntzetan, sortutako kuoten zenbatekoa elektrizitatea eta energia termiko baliagarria batera sortzeko zentralen titularrek adierazitako behin-behineko ehuneko baten arabera jasanarazi duten subjektu pasiboek, erregularizatu beharko dute jasanarazitako kuoten zenbatekoa ikatzaren behin betiko helburu ehunekoaren arabera, azken hau jakin eta gero, arauz ezarriko den prozeduraren bitartez.”

Hiru. Aldatu egiten da 91. artikulua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“91. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. 88. artikuluko 1.1. epigrafean ezarritako zerga tasa aplikatuz egiten diren ikatz hornikuntzetan, zerga arloko arau-haustea da gezurrezko edo okerreko datuak jakinaraztea subjektu pasiboei, horrek bidezkoak direnak baino kuota txikiagoak jasanaraztea badakar berekin.

Zehapenaren oinarria, jasanarazi beharko ziren kuoten eta benetan jasanarazi direnen arteko aldea izango da.

Zehapena ehuneko 50eko isun proportzionala izango da.

2. Zerga honi dagozkion gainerako arau-hausteak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako Zergei buruzkoan, xedatutakoarekin bat etorriz kalifikatu eta zehatuko dira.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioak, hala ere, artikuluetan adierazten den bezala sortuko ditu.

de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO

Artículo Único. Modificación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de los Impuestos Especiales.

Con efectos desde el 14 de julio de 2013, se modifican los siguientes preceptos del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de los Impuestos Especiales:

Uno. Se modifica el artículo 88, que queda redactado como sigue:

“Artículo 88. Tipos impositivos.

1. El Impuesto se exigirá con arreglo a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.1: Carbón destinado a usos con fines profesionales siempre y cuando no se utilice en procesos de cogeneración y generación directa o indirecta de energía eléctrica: 0,15 euros por gigajulio.

A efectos de lo previsto en este Epígrafe se considera carbón destinado a usos con fines profesionales los suministros de carbón efectuados para su consumo en plantas e instalaciones industriales, con exclusión del que se utilice para producir energía térmica útil cuyo aprovechamiento final se produzca en establecimientos o locales que no tengan la condición de plantas o instalaciones industriales. Asimismo, tendrá la consideración de carbón destinado a usos con fines profesionales, el carbón utilizado en cultivos agrícolas.

Epígrafe1.2: Carbón destinado a otros usos: 0,65 euros por gigajulio.

2. En los suministros de carbón destinado a ser utilizado en una planta de cogeneración de energía eléctrica y energía térmica útil, sujeta al requisito de acreditación del cumplimiento del rendimiento eléctrico equivalente a que se refiere la normativa de desarrollo de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, se aplicarán los tipos impositivos regulados en los Epígrafes 1.1 y 1.2 del apartado 1 de este artículo en función del porcentaje de carbón que corresponda imputar a la producción de electricidad medida en bornes de alternador y a la energía térmica útil, conforme al procedimiento que se establezca reglamentariamente.”

Dos. Se añade un párrafo, que irá tras el actual único párrafo, al apartado 1 del artículo 89, que queda redactado como sigue:

“En los suministros de carbón efectuados en los términos del apartado 2 del artículo 88 de este Decreto Normativo, los sujetos pasivos que hayan repercutido el importe de las cuotas devengadas en función de un porcentaje provisional comunicado por los titulares de centrales de cogeneración de electricidad y energía térmica útil, deberán regularizar el importe de las cuotas repercutidas conforme al porcentaje definitivo de destino del carbón, una vez conocido, mediante el procedimiento que se establezca reglamentariamente.”

Tres. Se modifica el artículo 91, que queda redactado como sigue:

“Artículo 91. Infracciones y sanciones.

1. En los suministros de carbón realizados con aplicación del tipo impositivo establecido en el Epígrafe 1.1 del artículo 88, constituye infracción tributaria comunicar datos falsos o inexactos a los sujetos pasivos, cuando de ello se derive la repercusión de cuotas inferiores a las procedentes.

La base de la sanción será la diferencia entre las cuotas que se hubieran debido repercutir y las efectivamente repercutidas.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 50 por ciento.

2. El resto de infracciones tributarias en este Impuesto se calificarán y sancionarán conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en su articulado.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidailko da, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorriz berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 1a.– Diputatu Nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**4177**

**393/2013 ERABAKIA, abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu Iciar Lamarain Cenitagoyari esleitzen diona, aldi baterako, abuztuko zenbait egunetan, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuari Adingabeen Kontseiluan dagokion ordezkaritza.**

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 23ko 186/2013 Erabakiaren bidez, xedatu zen Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren ordez Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatua jardungo zela Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritza lanetan, besteak beste Adingabeen Kontseiluan lehendakariorde gisa.

Ordezkapen horren iraupena zen erditu aurreko ezintasun egoeran zegoen bitartean Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, baita hark amatasun lizentzia zeukan bitartean eta edoskitze lizentzia metatua zeukan bitartean ere.

Adingabeen Kontseiluak dituen eskumen bereziak direla-eta organo horretako lehendakariak edo lehendakariordeak premiaz eman behar dituzte egintza juridikoak adingabeak babestearen arloan.

Horregatik, nola lan ezintasun horrek abuztuaren 28ra arte, hura barne, iraungo duen, eta ikusita hil horretan posible dela ez egotea ez lehendakaria ez lehendakariordea, kontuan izan behar da gorabehera hori.

Horregatik, Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran, eta diputatu nagusiak hala proposatuta, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- 2013ko abuztuaren 28ra arte, hura barne, lehendakaria eta lehendakariordea ez daudenean –egun horretara arte Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatu Alicia Ruiz de Infante Aguirre izango da lehendakariordea, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 23ko 186/2013 Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz-, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu Iciar Lamarain Cenitagoyak ordeztuko du azken hori, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa Adingabeen Kontseiluan.

Bigarrena.- ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere, berehala izapidetuko da erabaki honetan onartutako ordezkapena kasuan kasuko erregistro ofizialetan, eta jakinarazi egingo zaie entitate eta erakunde interesdunei Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritza aldi batez aldatuko dela Adingabeen Kontseiluan.

Hirugarrena.- Erabaki honen lehen paragrafoak aipatzen duen gertakaria gertatzen den egunean bertan sortuko ditu ondorioak erabaki honek

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 1 a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera. Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de agosto de 2013.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

**4177**

**ACUERDO 393/2013, del Consejo de Diputados de 1 de agosto, que asigna temporalmente, durante diversos días del mes de agosto, a la Diputada de Euskera, Cultura y Deporte, Dña. Iciar Lamarain Cenitagoya, la representación en el Consejo del Menor correspondiente a la Diputada de Servicios Sociales.**

Mediante Acuerdo 186/2013, de 23 de abril, del Consejo de Diputados, se dispuso la sustitución de la Diputada Foral de Servicios Sociales, por la Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, en la representación de la Diputación Foral de Álava, entre otras entidades, y en calidad de Vicepresidenta, del Consejo del Menor.

Dicha sustitución se refería al periodo correspondiente a la situación de incapacidad laboral previa al parto, licencia de maternidad y, en su caso, su acumulada de lactancia, de la Diputada Foral de Servicios Sociales.

Las especiales atribuciones del Consejo de Menor exigen la adopción urgente de actos jurídicos en protección de los menores por parte de la Presidencia o de la Vicepresidencia del dicho Órgano.

Por ello, manteniéndose la situación de incapacidad laboral mencionada hasta el 28 de agosto, inclusive, del mes de agosto, y teniendo en cuenta posibles ausencias coincidentes de la Presidencia y de la Vicepresidencia durante dicho mes, procede prever dicha contingencia.

En su virtud, el Consejo de Diputados, en sesión celebrada en el día de hoy, a propuesta del Diputado General

ACUERDA

Primero.- Durante el mes de agosto de 2013, hasta el día 28 inclusive, cuando se produzca la coincidencia de ausencias de la Presidencia y de la Vicepresidencia –hasta dicho día, Alicia Ruiz de Infante Aguirre, Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, de conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo 186/2013, de 23 de abril, del Consejo de Diputados- sustituirá a la anterior Iciar Lamarain Cenitagoya, Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, como representante de la Diputación Foral de Álava, en calidad de Vicepresidenta, en el Consejo del Menor.

Segundo.- Sin perjuicio de su publicación en el BOTHA, con carácter inmediato se procederá a tramitar la sustitución aprobada en el presente Acuerdo ante los Registros oficiales correspondientes y a comunicar a las Entidades y Organismos interesados la modificación temporal de la representación de la Diputación Foral en el Consejo del Menor.

Tercero.- El presente Acuerdo producirá efectos desde el mismo día en que se produzca el hecho al que se refiere el apartado primero de este Acuerdo.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de agosto de 2013.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Director del Gabinete del Diputado General, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.